- Promoción e impulso de políticas activas en el Sector, discriminando las ayudas hacia los agentes que se impliquen en los programas orientados hacia este enfoque estratégico: vertebración comercial, participación en certificaciones de calidad, formación continua, inversiones tecnológicas y en innovación, implantación de métodos de gestión soportados en las nuevas tecnologías de la información.

La futura Ley de Política Agraria y Alimentaria, los márgenes de actuación desde el primer pilar de la PAC, la orientación del próximo Plan de Desarrollo Rural sostenible, las ayudas nacionales y los programas de apoyo a las empresas alimentarias (Egoki, Ikerketa,...), constituirán los principales instrumentos de referencia.

- Apuesta por el rejuvenecimiento sectorial, tratando de potenciar el dinamismo empresarial que los jóvenes llevan en sí mismos. Esta apuesta ya ha iniciado su andadura en el sector agrario con la puesta en marcha del Plan Joven-Gaztenek.

- Diseño y puesta en marcha de una Plan Estratégico de Calidad Alimentaria, con horizonte 2010. Desde el mismo, se cuantificarán los objetivos de crecimiento, se analizarán los campos de mejora los diferentes subsectores, se revisarán y reorientarán los actuales mecanismos de apoyo, formación, investigación, transferencia tecnológica, innovación, diferenciación de calidad, control de la seguridad alimentaria, promoción, etc... y se pondrán en marcha nuevos instrumentos que respondan a las estrategias de generación de mayor valor añadido.

Este Plan estructurará el enfoque de orientar todos los instrumentos financieros, políticas de fomento, planes de formación, programas de investigación e innovación, promoción de productos e instrumentos de seguridad alimentaria y certificación de la calidad, hacia el Objetivo estratégico de generar mayor riqueza por parte del Sector Agroalimentario.

La mayor baza competitiva con que cuenta el Sector en materia alimentaria es la calidad de sus productos, y en la medida de lo posible el Plan sustentará sus líneas estratégicas sobre este pilar.

- Ligado a este enfoque integral de la cadena de valor, el Departamento, a través del *proyecto Neartalde*, reorientará funciones y actuaciones a desarrollar por las Sociedades y Fundaciones ligadas al DAPA (AZTI; NEIKER; KALITATEA; IKT, ELIKA, MENDIKOI) hacia esta estrategia común, si bien respetando el marco propio de actuación de cada organización.

Aipatutako helburu estrategikoak lortzeko, sailak sektorearen eraldaketa sustatuko du. Horretarako, Zientzia eta Teknologiaren esparruko, Informazio eta Jakintzaren Gizarteko nahiz Kalitate Osoaren esparruko lanabesak sustatuko ditu; kalitatezko produktuak sortzen dituzten, natur ondarea arrazoiz eta kontzienteki erabiltzen duten, kudeaketa-eredu berriak sartzen dituzten... enpresak babestuko ditu; eta sektorea modu iraunkorrean garatzeko gai diren profesionalen prestakuntza sustatuko du.

Iraunkortasuna eta aberastasun handiagoa lortzeko strategiaren euskarria zabalkunde-politika izango da, sektoreari nahiz euskal gizarteari mezu garbiak helarazteko gai izango den politika, eta sektoreko agenteak etapa honetan dagokien eginkizunaz jabetu eta konbentzitu dituen.

Era berean, estrategia hau garatzeko, koherentziak hala eskatzen baitu, sailaren funtzionamendu-eskemak egokitu-modernizatu behar dira maila hauetan: plangintza, prozesuen eta komunikazio-sistemen hobekuntza, elkarrekintza, hiritarrekiko transakzioa eta instituzioen barruko nahiz instituzio arteko lankidetzak.

Para alcanzar los objetivos estratégicos dichos, el Departamento impulsará la transformación sectorial mediante la potenciación de instrumentos en el ámbito de la Ciencia y Tecnología, la Sociedad de la Información y el Conocimiento y la Calidad Total, apoyará las empresas, que generen productos de calidad, utilicen racional y conscientemente el patrimonio natural, incorporen nuevos modelos de gestión, etc. y potenciará la formación de profesionales capaces de desarrollar el sector de forma sostenible.

Esta estrategia de sostenibilidad y generación de mayor riqueza, se va a apoyar en una política de difusión, capaz de transmitir mensajes claros al sector y a la Sociedad Vasca, y de concienciar y convencer a los agentes sectoriales del papel que tienen que jugar en esta etapa.

Así mismo, el desarrollo de esta estrategia exige por coherencia la adecuación-modernización de los esquemas de funcionamiento del departamento a nivel de planificación, mejora de sus procesos y de los sistemas de comunicación, interacción, transacción con los ciudadanos y colaboración administrativa intra e interinstitucional.

PROGRAMA

5411 NEKAZARITZA ETA ARRANTZA ALORREKO
IKERKETA ETA GARAPENA

ARDURADUNA

13 NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA
TEKNOLOGIAREN BERRIKUNTZA ETA
GARAPENEN ZUZENDARITZA

PROGRAMA

5411 INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO
AGROPESQUERO

RESPONSABLE

13 AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN
DIRECCIÓN DE INNOVACIÓN Y DESARROLLO
TECNOLÓGICO

MEMORIA

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak lehiakortasunerako tresnatzat jakintzaren aldeko apustua egiten jarraitzen du. Zentzu horretan, goi-mailako adituak prestatzea eta ikerketa estrategiko eta berritzaileko proiektuak bultzatzea dira bere jardueraren zutabe nagusiak. Bestalde, hainbat azpisektoreen parte hartzea da jakintzaren kudeaketa eraginkorraren bermea, ez bakarrik lan-ildo nagusien definizioan parte hartzen dutelako azpisektore horiek, baizik eta, batez ere, teknologia eta aurrerapenak bereganatu eta praktikan jartzen dituztelako. Hirugarren zutabea iraunkortasuna da, horixe baita plangintza estrategiko osoaren erreferentzia eta helburua. Bestalde, irizpide horiek aplikatuko dira lehen mailako baliabideen kudeaketa egokiena egiteko, ehiza, arrantza eta basoei dagokienez, batez ere.

Jarduera-esparrua hori izanik, Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko Zuzendaritzak 2006ko ekitaldian ekintza hauek gauzatzeko ahaleginak egingo ditu:

1.- Ikerketaren plangintza, jarraipena eta ebaluazio.

Ildo hau garatzeko ekintzek I+G+I-ko plan sektorialetan daukate erreferentzia. Plan horiek sailak zehaztu eta onartu ditu, eta, dagozkien sektoreekin hitzartu ditu. Ardogintza eta mahastizaintzako, basogintzako eta barazkizaintzako planak jadanik fruituak ematen ari dira, eta, 2006an Elikadurako eta Bioteknologiako planak burutuko dira. 2006. urtean, ingurumena errespetatzen duten nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantzako ekoizpen-teknologia berriak garatzeko ekintzak ere bereziki bultzatzen jarraituko dugu, 2002-2020ko Garapen Iraunkorraren EAEko Ingurumen Estrategiak jarritako helburuekin nahiz sailak 2002-2006ko Ingurumeneko Esparru Programaren barruan hartutako konpromisoekin bat etorriz. Arlo honetako erreferentziak honakoak izango dira: ekoizpen integratua, baliabide eta hondakinen kudeaketa egokia eta horien guztien erregulazioa.

El Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación sigue apostando por el conocimiento como herramienta de competitividad. En este sentido, tanto la formación de especialistas de alto nivel como el impulso de proyectos de investigación estratégica e innovadora son piezas claves en su actividad. Por otra parte, la implicación de los diferentes subsectores a través no sólo de su participación en la definición de principales líneas de trabajo sino también, y sobre todo, de la asunción y puesta en práctica de la tecnología y los avances que se van desarrollando constituye la principal garantía de eficacia en la gestión del conocimiento. El tercer pilar lo constituye la sostenibilidad, como referencia y objetivo de toda planificación estratégica. Estos criterios se aplicarán asimismo en la gestión óptima de los recursos primarios, fundamentalmente en lo que se refiere a caza y pesca y a bosques.

En este marco de actuación, la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico concentrará sus esfuerzos durante el ejercicio 2006 en el desarrollo de las siguientes acciones:

1.- Planificación, seguimiento y evaluación de la investigación.

Las acciones a través de las que se desarrollará esta línea tienen su referente en los Planes Sectoriales de I+D+I definidos y aprobados por el propio Departamento y consensuados con los respectivos sectores. Los Planes Vitivinícola, Forestal y Hortícola se encuentran ya dando frutos y a lo largo de 2006 se culminarán los Planes Alimentario y Biotecnológico. Se van a continuar potenciando en 2006 de forma especial las actuaciones destinadas al desarrollo de nuevas tecnologías de producción agroalimentaria, forestal y pesquera respetuosas con el medio ambiente, de acuerdo con las metas planteadas en la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020 y, con los compromisos adquiridos por el Departamento dentro del Programa Marco Ambiental 2002-2006. La producción integrada y la gestión óptima de recursos y residuos, así como su regulación serán los referentes en esta área.

Bestalde, ahalegin berezia egingo da elikadura-segurtasuneko berme guztiak dituzten nekazaritza- eta arrantza-produktuak eskuratzera zuzendutako oinarri zientifiko-teknikoak ezartzeko, trazabilitatea sustatuz, ekoizletik hasi eta kontsumitzailearenganaino. Nekazaritzako elikagaien analisisirako laborategiak nazioarteko kalitate-arauetara egokitzeko prozesua burutuko da, teknika analitikoaren fidagarritasuna bermatzeko helburuarekin, hori garrantzi handikoa baita elikagaien segurtasuna eta kalitatea bermatzeko egiten diren kontroletan.

Ikerketa-ildo estrategikoak NEIKER baltzu publikoak eta AZTI fundazioak garatuko dituzte. Bestalde, helburu berarekin, lankidetzaren hitzarmenak egingo dira Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta hainbat gaitan adituak diren beste zientzia- eta teknologia-zentro batzuekin; TECNOLATEkin eta Lea-Artibai ikastetxearekin, esate baterako. Ikerketa-zentro horiek plan sektorial bakoitzaren barruan onetsitako proiektu estrategikoak burutuko dituzte azpisektore bakoitzaren babesaz. Jorratuko diren arloak honakook dira: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, natur ingurunea, ozeanografia, arrantza, itsas ingurumena, eta elikagaien teknologia. Arreta berezia eskainiko zaie proiektuen jarraipenari eta ebaluazioari, eta baita emaitzen transferentziari ere.

Era berean, nazioarteko erakundeekin lankidetzan aritzeak izango du lehentasuna. Horretarako, akordioak sinatuko ditugu eta nazioarteko lankidetzaren eta bikaintasun-sareetan parte hartuko dugu.

Kalitatezko ikerketa lortzeko eta I+G-ko eskari sektorialari erantzuteko, komunitate zientifiko-teknologikoak bere ekintzak garatzeko beharrezkoa den azpiegitura eskura izateko ahalegina egingo da, ekipamendu zientifikoa erosteko laguntza emanez, instalazioak modernizatuz etab.

Lehentasunezko ikerketa-esparru batzuk ezarri dira, alegia, mahastizaintza eta ardogintza, basogintza, bioteknologia eta baratzezaintza. Arlo horiek dira, bereziki, sailaren inbertsioak eskatzen dituztenak.

Nekazaritza, arrantza eta elikadura arloan EAEko ikerketa estrategikoa zehazten duten proiektu horiek denak sailak berak zuzenean finantzatzeko baditu ere, Eusko Jaurlaritzaren beste sailek, foru-aldundiek eta Europar Batasunak ere ekarpenak egin ahal izango dituzte.

Ikertzaileak prestatzea oso garrantzizkoa izango da. Horretarako, beka-deialdiak egingo ditu sailak. Baina, gainera, funtsezkoa da etorkizuna duten lan-ildoetan ikerlarien espezializazioa eta birziklapena sustatzea, I+G-ko nazioarteko ospe handiko zentroetan goi-mailako prestakuntza eta ikerlarien mugikortasuna bultzatuz.

Azkenik, lehenago azaldutako mekanismoen gain, sektoreko enpresentzako I+G-ko laguntzak tresna oso garrantzitsua dira epe laburreko arazoak erantzuteko eta, batez ere, enpresa-esparruko ekintzei laguntzeko eta beste teknologia-zentroekin elkarlana errazteko.

2.- Garapena eta teknologia-transferentzia.

Por otra parte, se continuará realizando un esfuerzo especial en asentar las bases científico-técnicas dirigidas a la obtención de productos agropesqueros que presenten todas las garantías de calidad y seguridad alimentaria, a través fundamentalmente del control de su trazabilidad desde el productor hasta el consumidor. Se culminará el proceso de adaptación de los laboratorios de análisis alimentarios a las normas de calidad internacionales, con el fin de asegurar la fiabilidad de las técnicas analíticas, de especial relevancia en los controles necesarios para garantizar la seguridad y calidad alimentaria.

El desarrollo de las líneas estratégicas de investigación se realizará por la Sociedad Pública NEIKER y la Fundación AZTI y a través de convenios de colaboración con la Universidad del País Vasco y con otros centros científico-tecnológicos como TECNOLAT y Lea-Artibai Ikastetxea en las materias en las que cada centro es especialista. Este conjunto de centros de investigación ejecutará los proyectos estratégicos aprobados dentro de cada Plan Sectorial y respaldados por cada subsector. Los subsectores contemplados son: agricultura, ganadería, forestal, medio natural, oceanografía, pesca, medio ambiente marino y tecnología de los alimentos. Se prestará una especial atención al seguimiento y a la evaluación de los proyectos, así como a la transferencia de resultados.

Se seguirá priorizando asimismo la colaboración con organismos internacionales a través de la suscripción de acuerdos y de la participación en redes de cooperación y de excelencia internacionales.

Con el fin de conseguir una investigación de calidad y responder a la demanda sectorial de I+D, se tratará de que la comunidad científico-tecnológica disponga de la infraestructura necesaria para el desarrollo de sus actividades, mediante el apoyo para la adquisición de equipamiento científico, modernización de instalaciones, etc.

Como áreas de investigación prioritarias y por lo tanto, demandantes de un mayor esfuerzo inversor del Departamento, se establecen: vitivinicultura, forestal, biotecnología y horticultura.

La financiación de este conjunto de proyectos que definen la investigación estratégica de la CAPV en materia de agricultura, pesca y alimentación se realizará directamente por el Departamento, contando además con aportaciones de otros Departamentos del Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y la Unión Europea.

La formación de investigadores tendrá un papel relevante utilizando como herramienta la convocatoria de becas del Departamento. Además de ello, es fundamental fomentar la especialización y reciclaje del personal investigador en aquellas líneas de trabajo con proyección de futuro y, por tanto, se seguirá apoyando la formación de alto nivel en centros de I+D de prestigio internacional y la movilidad de los investigadores.

Por último, aparte de los mecanismos ya explicados, las ayudas de I+D a empresas del sector constituyen una herramienta muy importante, no sólo para dar respuesta a problemas a corto plazo, sino también y fundamentalmente para apoyar iniciativas del ámbito empresarial y facilitar su colaboración con los centros tecnológicos.

2.- Desarrollo y transferencia tecnológica.

Teknologia da azpisektoreak garatzeko giltzetako bat. Produktu berrien garapena da zuzendaritza honen lehentasunezko helburuetako bat, horretan oinarritzen baita eta oinarritu behar baita nekazaritzako elikagaien enpresen estrategien zati garrantzitsu bat, lehiakortasun-kalitatea hobetzeko.

Helburu hori lortzeko beharrezkoa da zentro teknologikoak egokitzea, ildo berrietan lan egiteko gai izan daitezen. Horretarako, ingeniari-talari profesionalak hartu eta lankidetzak-hitzarmenak egin behar dira sektoreko enpresekin.

I+G-ko laguntzek funtsezko tresna izaten jarraituko dute helburu hori lortzeko. Alde horretatik, lau arlotan arituko gara:

- Teknologia berriak garatzeko proiektuen kofinantzaketa, zentro teknologikoen laguntza.
- Sektore edo azpisektore baterako eragingarriak diren enpresen eredu proiektuak egitea.
- Gaitasun handiko profesionalak lantokiratzea sailaren beka-planaren bitartez. Plan horren helburua teknologoak prestatzea da enpresetan sartzeari begira.
- Beste esparru batzuetan erabilitako teknologiak erabiltzea eta egokitzea.

Ikerketa-emaitzen eta garapen teknologikoen transferentziak eta zabalkundeak izan behar du azken helburua, I+G-ren sektorean aplikagarriak izan daitezen, eta, alde horretatik, jardunaldi eta biltzarren antolaketa, emaitzen argitalpena, emaitzen trukaketa (sare tematikoetan parte hartuz) eta abar bultzatuko dira.

3.- Berrikuntza.

Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko Zuzendaritzak sektoreko enpresekin daukan ekintza zuzenaren funtsezko zutabeetako bat da. Ikerketa, garapena eta berrikuntza tradizioz ekoizpenari lotutako teknologiarekin uztartu izan dira. Alabaina, enpresen lehiakortasunaren hobekuntza hori baino askoz ere gehiago da: produktu berriak garatzeko berrikuntza, produktuen kalitate eta segurtasuneko berrikuntza, logistika, merkatu berriak bilatzea eta barruko antolamendua. Nekazaritzako elikagaien enpresetan berrikuntza bultzatzeko, laguntza-programa bat bultzatuko da. Programa horren oinarria hauxe da: aurrerakin itzulgarriak ematea ikerketa, garapen eta berrikuntzako proiektuak burutzeko, honako arloetan esate baterako:

- Kalitatea edo ekoizpena hobetzeko antolakuntza-azterketak.
- Produktu berrien garapena, merkaturatu bitarteko marketina eta merkatuaren alderdi teknikoak barne harturik.
- Marketin-estrategien garapena.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiei buruzko azterlanak eta diagnostikoak, eta horiek ezartzeko laguntzak, E-DAP ildoari jarraiki.

La tecnología constituye una de las piezas claves para el desarrollo de los distintos subsectores. El desarrollo de nuevos productos, en el que se basa y se debe basar una parte muy importante de las estrategias de las empresas agroalimentarias para mejorar su calidad competitiva se establece como un objetivo prioritario de esta Dirección.

La consecución de este objetivo implica por una parte la adaptación de los centros tecnológicos para ser capaces de trabajar en nuevas líneas incorporando profesionales del ámbito de la ingeniería y estableciendo acuerdos de colaboración con las empresas del sector.

Las ayudas de I+D seguirán siendo una herramienta básica para la consecución de este objetivo, actuando desde varios frentes:

- Cofinanciación de proyectos de desarrollo de nuevas tecnologías en colaboración con centros tecnológicos.
- Creación de proyectos piloto de empresas que actúen como tractores para un sector o subsector.
- Incorporación de profesionales altamente cualificados mediante el plan de becas del Departamento orientado a la formación de tecnólogos para su incorporación a empresas.
- Incorporación y adecuación de tecnologías utilizadas en otros ámbitos.

La transferencia de resultados de investigación y de los desarrollos tecnológicos debe ser un objetivo final para lograr la aplicabilidad en el sector de la I+D realizada y en este sentido, se apoyará la organización de jornadas y congresos, la publicación de resultados, el intercambio de resultados mediante la participación en redes temáticas, etc.

3.- Innovación.

Constituye uno de los pilares fundamentales sobre el que se sustenta la acción directa de la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico con las empresas del sector. Tradicionalmente hablar de investigación, de desarrollo o de innovación ha estado unido al concepto de tecnología asociada a la producción. Sin embargo, la mejora de la competitividad de las empresas debe entenderse obligatoriamente desde un punto de vista mucho más amplio: Innovación en el desarrollo de nuevos productos, en la calidad y seguridad de los productos, y también en aspectos clave como la logística, la búsqueda de nuevos mercados y la organización interna. Para apoyar esta innovación en las empresas agroalimentarias se impulsa un programa de ayudas basado en la concesión de anticipos reintegrables para llevar a cabo diferentes proyectos de investigación, desarrollo e innovación en áreas como:

- Estudios de organización dirigidos a la mejora de la calidad o de la producción.
- Desarrollo de nuevos productos incluyendo los aspectos técnicos de marketing y de mercado hasta la fase de lanzamiento.
- Desarrollo de estrategias de marketing.
- Estudios y Diagnósticos para la incorporación de las TICs y apoyo a la implantación, dentro de la Línea E-DAPA.

Tresna honek onura bikoitza ekartzen dio sektoreari: alde batetik, industriaren ekimenak bultzatzen dira, eta bestetik, enpresak zuzenean inplikatzeko arriskua berekin dakarten proiektu berritzaileetan (NAESek proiektuaren hasierako ebaluaziozko proiektuaren buruzapenera arteko kudeaketan parte hartzen du).

4.- Plangintza eta kudeaketa.

Honakoak dira NAESen helburu estrategikoak: landa-lurra defendatzea, lehen mailako baliabideen kudeaketa optimizatzea eta baliabide horien aprobetxamendu iraunkorra lortzea, eta hondakinak egoki kudeatzea (hondakinen balorizazioa ere kontuan hartuz).

Ildo honen garapenera dagokionez, lurralde-antolamendu sektorialean lan egingo da, Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialean aurreikusitako tresna eta jarraibideak ezarriz, eta horiek gainerako politika sektorialekin koordinatuz.

Baliabideen kudeaketa iraunkorraren ikuspegitik, basogintzaren sektorean, ehiza eta arrantzan nahiz bertako arrazetan ahalik bereziak egingo dira. Basogintzaren sektoreak, bereziki, ingurumen-ekintza egokietara bideratutako aldaketak izan ditu azken urteotan, eta egurra balioetsi da lehengai natural, ekologiko eta berriztagarri gisa. Horren isla izan dira ustiatagietako eta eraldaketa-industriako kudeaketa iraunkorraren ziurtapenak. Kudeaketa horri eragiteko eta dakartzen onurak areagotzeko, 2006an basogintzako ekoizpen iraunkorretik lortutako produktuen bereizmena eta kontsumoa sustatuko dira. Iraunkortasuna eta biodibertsitatearen zainketa irizpidetzat hartuta, ehiza eta arrantza sustatzen jarraituko da eta baita bertako arrazaren kontserbazioa ere. Horrez gain, erregulazio espezifikoak ezarriko dira.

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako hondakinen kudeaketa eta baita horiekin lotutako industriarena ere balorizatuko dira, abeltzaintzako hondakinentzat bioerregaien plantak sustatzeko eta teknologia berrien bidez nekazaritza, arrantza eta elikagaigintzako industrietako azpiproduktuak aprobetxatzeko. Birziklatzeko eta jatorrian sortutako hondakinak gutxitzeko jarraibideak ere ezarri eta arautuko dira.

Eusko Jaurlaritzaren sailen arteko organoetan antolamendu-arloan parte hartzeari begira egin beharreko txosten eta azterlanek Landa Garapenerako Legean ezarritako jarraibideak jasoko dituzte, antolamendu-proposamenak garatzeko funtsezko elementuak diren aldetik.

Esta herramienta actúa en beneficio del sector en un doble aspecto: por un lado, se apoyan las iniciativas de la propia industria y, por otro, supone la implicación directa de las empresas en proyectos innovadores con riesgo asociado, en cuya gestión el DAPA participa desde la evaluación inicial del proyecto hasta su culminación.

4.- Planificación y gestión.

La defensa del suelo rural y la optimización de la gestión y aprovechamiento sostenible de los recursos primarios, así como una correcta gestión de los residuos, que incluya la valorización de los mismos, son objetivos estratégicos del DAPA.

En el desarrollo de esta línea se trabajará en la ordenación territorial sectorial mediante la implementación de los instrumentos y directrices previstos en el Plan Territorial Sectorial Agroforestal y a través de su coordinación con el resto de políticas sectoriales.

Desde el punto de vista de la gestión sostenible de recursos se realizarán esfuerzos especiales en el sector forestal, en caza y pesca y en razas autóctonas. Particularmente el forestal es un sector que en los últimos años ha experimentado cambios orientados a las buenas prácticas ambientales y a la puesta en valor de la madera como materia prima natural, ecológica y renovable. Esto ha tenido como reflejo la certificación de gestión sostenible en las explotaciones y en la industria transformadora. Para actuar como elemento tractor y potenciar los beneficios de esta gestión, durante el año 2006 se fomentará la diferenciación y el consumo de productos procedentes de la producción forestal sostenible. Se seguirá fomentando la caza y pesca y la conservación de razas autóctonas bajo el criterio de sostenibilidad y mantenimiento de la biodiversidad y se establecerán regulaciones específicas.

La gestión de los residuos agrarios, ganaderos y pesqueros, así como los de la industria asociada tendrá como referencia su valorización, con la previsión de impulsar plantas de biocombustibles a partir de residuos ganaderos y de optimizar, mediante nuevas tecnologías, el aprovechamiento de subproductos de la industria agropesquera y alimentaria. Las pautas para reducción de residuos en origen y el reciclado serán también establecidas y reguladas.

Los informes y estudios a realizar para la participación en los órganos interdepartamentales del Gobierno Vasco en materia de ordenación territorial y sectorial recogerán las directrices marcadas en la Ley de Desarrollo Rural como elementos claves para el desarrollo de las distintas propuestas de ordenación.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREAREN BEHARREI ERANTZUTEKO MODUKO GAITASUN IKERTZAILEA IZATEA, BAI ETA SEKTORE HORREN TEKNOLOGIA ETORKIZUNEKO AGERTOKIETAN GARATZEKO ERAKARGARRIA IZATEA.		1. DISPONER DE CAPACIDAD INVESTIGADORA PARA RESPONDER A LAS DEMANDAS DEL SECTOR AGROALIMENTARIO, ASÍ COMO ACTUAR DE ELEMENTO TRACTOR EN SU DESARROLLO TECNOLÓGICO EN ESCENARIOS DE FUTURO.
1. I+G-eko proiektuak (AZTI Fundazioaren bitartez).	70	1. Proyectos de I+D a través de AZTI Fundazioa.
2. I+G-eko proiektuak (NEIKER A.B.aren bitartez).	100	2. Proyectos de I+D a través de NEIKER A.B.
3. I+G-eko proiektuak TECNOLATen bitartez.	15	3. Proyectos de I+D a través de TECNOLAT.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCION INDICADOR
4. I+G-ko proiektuak (EHUren bitartez).	5	4. Proyectos de I+D a través de la UPV.
5. I+G-ko proiektuak (Lea-Artibai ikastetxearen bitartez).	2	5. Proyectos de I+D a través de Lea-Artibai Ikastetxea.
6. Akordioa Industri, Merkataritza eta Turismoa Sailarekin.	1	6. Acuerdo con el Departamento de Industria, Comercio y Turismo.
7. Prospektiba teknologikoa.	4	7. Prospectiva tecnológica.
8. Hitzarmena I+G-eko agenteekin.	2	8. Convenio con agentes de I+D.
9. Sektoreko batzordeak eta lantaldeak sustatzea.	4	9. Activación de los Comités y grupos de trabajo sectoriales.
10. Doktoratu aurreko beka-programa.	6	10. Programa de Becas Predoctorales.
11. Ikerlarien espezializazioa eta birziklapena.	5	11. Especialización y reciclaje de personal investigador.
12. Azpiegitura zientifiko-teknologikoa.	10	12. Infraestructura científico-tecnológica.
2. ENPRESEN ETA NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN ERAKUNDEEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA TEKNOLOGIA GARATUZ.		2. MEJORA DE LA CAPACIDAD COMPETITIVA DE LAS EMPRESAS Y ORGANIZACIONES AGROALIMENTARIAS MEDIANTE EL DESARROLLO TECNOLÓGICO.
1. Transferentzia teknologikoa. Eraitzen zabalkundea.	10	1. Transferencia Tecnológica. Divulgación de resultados.
2. Proiektu indibidualak eta enpresekin elkarlanean egitekoak (I+G-eko Dekretua).	40	2. Proyectos individuales y de cooperación con empresas (Decreto de I+D).
3. Teknologoak prestatzeko programa.	10	3. Programa de Tecnólogos.
3. ENPRESEN ETA NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN ERAKUNDEEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA TEKNOLOGIA, MERKATU-PRODUKTUAK ETA ANTOLAKUNTZA-BIDEAK BERRITUZ.		3. MEJORA DE LA CAPACIDAD COMPETITIVA DE LAS EMPRESAS Y ORGANIZACIONES AGROALIMENTARIAS MEDIANTE INNOVACIÓN TECNOLÓGICA, NUEVOS PRODUCTOS DE MERCADO Y DE ORGANIZACIÓN.
1. I+G+I-ko proiektuei aurrerakin itzulgarrien bidez laguntzeko programa.	10	1. Programa de apoyo a la I+D+I mediante anticipos reintegrables.
4. NEKAZARITZA ETA INGURUNE, ETA LANDA GARAPENARI BURUZKO KONTZEPTUAK LURRALDE-ANTOLAMENDUARI EZARTZEA.		4. INCORPORACIÓN DE LOS CONCEPTOS AGROAMBIENTALES Y DE DESARROLLO RURAL A LA ORDENACIÓN DEL TERRITORIO.
1. Txostenak egitea antolamendu- edota estrategia-planerarako.	4	1. Realización de informes para los Planes de Ordenación y/o Estratégicos.
2. Araztaileen hondakinak nekazaritza ingurunean erabiltzeko buruzko agindua.	1	2. Orden de uso de residuos de depuradoras en el medio agrario.
3. Basozaintza jasangarritik eratorritako produktuak sustatzeko ekinaldia.	1	3. Campaña promoción productos del bosque sostenible.
4. Hitzarmenak basozaintza-sektorearekin.	3	4. Convenios con el sector forestal.
5. Hondakinak kudeatzeko plana.	1	5. Plan de gestión de residuos.

PROGRAMA	PROGRAMA
7110 EGITURA ETA LAGUNTZA	7110 ESTRUCTURA Y APOYO
ARDURADUNA	RESPONSABLE
13 NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA	13 AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN
SAILBURUAREN KABINETEKO ZUZENDARITZA ETA ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DEL GABINETE DEL CONSEJERO Y DIRECCIÓN DE SERVICIOS GENERALES

MEMORIA

Sailburuaren Kabineteke Zuzendaritzaren oinarritzko eginkizuna sailburuari laguntza ematea da, eta, besteak beste, honako zeregin hauek betetzen ditu: harremanak bideratu Europako, Estatuko, Autonomia Erkidegoko erakundeekin eta Eusko Jaurlaritzako gainontzeko sailekin; programazio-agiri bakarrak diseinatu; EBren arauak eta politikak egin eta aplikatzeko Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzea koordinatu; plan estrategikoak eta horiei dagozkien jarraipen-txostenak koordinatu; informazio-sistema, estatistika eta analisi sektorialen plangintza, koordinazioa eta kudeaketa egin; sailak gizarte-komunikabideekin dituen harremanak koordinatu; EBren Nekazaritza Politika Bateratuaren gastuen inguruan Erakunde Ordaintzaileak egin beharreko barne-auditoria egin; sailaren menpeko enpresa eta fundazioen lankidetzak bultzatu; Informazio eta Jakintzaren Gizartea sustatu eta garatzeko, sailak egin behar dituen jarduerak diseinatu eta horien jarraipena egin.

Jarduteko lau eremu edo unitate handitan eskainiko ditu bere zerbitzuak zuzendaritzak:

A. Plangintza, Erakunde arteko Harremanak eta Komunikazioa. Honako eginkizun hauek ditu: sailaren jarduketa-programa publikoak egin eta kontrolatzea, sektorea ukitzen duten politika eta ekintza komunitarioak jarraitu eta ebaluatzea, nazioarteko eztabaida-gune eta erakundeetan parte hartzea, beste erakunde publikoekiko harremanei eustea, plan eta proiektu estrategikoak sortu eta horien jarraipena egitea, gizarte-komunikazioa koordinatzea, etab.

B. Informazioa eta Sektore Analisia. Sektoreko informazioa kudeatzea dauka helburu, bai prozesuen bai edukien ikuspuntutik. Lehenasuna dute estatistikak, datu-bankuak sortzeko eta informazioaren atzipen- eta hedatze-sistemak, sektoreko analisiak eta azterlanek, Sustrai aldizkariaren argitalpenak, eta sailak Informazio eta Jakintzaren Gizarteari dagokionez egiten duen politika koordinatzeak.

La Dirección del Gabinete del Consejero, en su función básica de apoyo al Consejero, se configura como un órgano que lleva a cabo, entre otras, funciones de canalización de las relaciones del Departamento con las Instituciones Comunitarias, Estatales y Vascas y con el resto de Departamentos del Gobierno Vasco, del diseño de los Documentos Únicos de Programación, de coordinación para desarrollar la intervención del Gobierno Vasco en la elaboración y aplicación de la normativa y de las políticas de la U. E., de coordinación de los planes estratégicos y sus informes de seguimiento, de planificación, coordinación y gestión de los sistemas de información, estadística y análisis sectorial, de la coordinación de las relaciones del Departamento con los medios de comunicación social, de la realización de la auditoria interna del Organismo Pagador de los gastos de la política Agrícola Común de la U. E., de la potenciación de la colaboración de las empresas y fundaciones dependientes del Departamento, así como del diseño y seguimiento de las actuaciones departamentales en el ámbito de la promoción y desarrollo de la Sociedad de la Información y el Conocimiento.

La Dirección va a prestar sus servicios en 4 grandes Áreas o Unidades de Actividad:

A. Planificación, Relaciones Institucionales, y Comunicación, dedicada a la elaboración y control de programas públicos de actuación departamental, al seguimiento y evaluación de las políticas y acciones comunitarias de interés sectorial, a la participación en foros y organismos internacionales y al soporte con otras instituciones públicas, a la elaboración y seguimiento de planes y proyectos de carácter estratégico, a la coordinación en materia de comunicación social, etc.

B. Información y Análisis, que dirige su actividad a la gestión de la información sectorial desde la perspectiva tanto de procesos como de contenidos, con especial incidencia en la estadística, la generación de repositorios de información y de sistemas de acceso y difusión de la información, los estudios y análisis sectoriales, la publicación de la revista Sustrai, así como la coordinación de la política departamental relacionada con la Sociedad de la Información y el Conocimiento.

C. EAeko Erakunde Ordaintzailearen auditoria. Honen helburua da Erakunde Ordaintzaileak kudeatutako NBBEF-Bermea atalaren diru-laguntzen eta ABFTk eta NBBEF-Orientazioa atalak finantzatutako diru-laguntzen barne-auditoria egitea.

D. NAESen inguruko erakundeak. Sailari "atxikitako" enpresa eta fundazioen koordinazioa indartzea da helburua, bereziki horietako bakoitzaren kudeaketa bikaina eta, oro har, "taldearen" kudeaketa bikaina lortzeko.

Bestalde, Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritza ere izaera horizontaleko organoa da, eta helburu du laguntza-zerbitzuen azpiegitura garatu, zaindu eta hobetzea, laneko inguru egoki bat sortzearen, sailako gainerako unitateei beraien helburuak lortzea errazteko. Eginkizun hori honako zerbitzu hauek eratzten dute:

- **Ekonomi eta Aurrekontu Kudeaketa.** Honako eginkizunak ditu: Sailaren Aurrekontuen Aurreproiektua egitea; horren koordinazioa eta jarraipena egitea, eta, oro har, sailaren ekonomia eta aurrekontuen kudeaketaz arduratzea; sailaren eskumeneko arloetako ikerketa eta memoria ekonomikoak programatu, koordinatu eta, hala dagokionean egitea; Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Bateratuak Erkidego-mailako arautegiaren esparruan dituen gastuak kontrolatzeko, Erakunde Ordaintzaileak egin beharreko kontabilitatea egitea; sailaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arteko harremanak koordinatu eta bideratzea; sailaren kontratazio-organoa izatea; etab.

- **Langileen Kudeaketa eta Gai Orokorrak.** Honako eginkizunak ditu: langileak kudeatzea, plantillaren beharrezan aurreikustea, prestakuntza- eta hobetze-plan eta programak sustatzea, sailako zerbitzuei informazioa behar bezala ematea, etab.

- **Zerbitzu Juridikoa.** Bere jardueren artean honakoak daude: sailburuari eta sailako organoei laguntzea alor juridiko-administratiboan; eskatzen zaizkion zuzenbideko txostenak egitea; sailak sortutako arautegia koordinatu, hala dagokionean egin, eta kontrolatzea; prozedura judizialetan sailaren interesen jarraipena egitea eta interes horiek defendatzea Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako organo eskudunaren bitartez; Gobernu Kontseilura edo hark eskuordetutako organora bidali beharreko espediente eta gaiak nahiz Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo beste edozein aldizkari ofizialetan argitaratu beharreko xedapen eta administrazio-egintzak izapidetu eta kontrolatzea.

- **Liburutegiaren, Artxiboaren eta Agirien Kudeaketa.** Erregistro Nagusia, Artxiboa, Liburutegia eta sailaren gainontzeko dokumentazio-zentroak antolatu eta zuzentzen ditu.

- **Antolamendua eta e-Administrazioa.** Kalitatezko kudeaketaren bidez barruko nahiz kanpoko prozesuak eraldatzea du helburu, horretarako teknologia, komunikabideak eta interneta erabiliz. Horrekin guztiarekin, sailaren ekintzak sendoagoak eta eraginkorragoak izatea lortu nahi da, gobernu-jarduera hobea izatea eta hiritarrei zerbitzu hobea ematea.

Bi zuzendaritzek, bakoitzak bere funtzio-eremuan, 2006ko ekitaldian egingo dituzten ekintza eta proiektuak bideratuta egongo dira aurreko atalean (Xede Orokorrak eta Jarduteko Esparrua) definitutako helburuak lortzera.

Horrela, Sailburuaren Kabineteko Zuzendaritzak, lehenago aipatutako ekintza-arloen bitartez, honelako ekintzak burutuko ditu:

C. Auditoría del Organismo Pagador de la CAPV, con la función de realizar la Auditoría Interna de las ayudas del FEOGA Garantía gestionadas por el Organismo Pagador y las ayudas financiadas por el IFOP y el FEOGA Orientación.

D. Entidades entorno DAPA, con el objetivo de potenciar la coordinación de las empresas y fundaciones "adscritas" al Departamento en orden a conseguir la excelencia en la gestión de cada una de ellas en particular y del "Grupo" en general.

Por su parte, la Dirección de Servicios Generales queda configurada como un órgano de carácter horizontal que tiene por objeto el desarrollo, mantenimiento y mejora de una infraestructura de servicios de apoyo, en orden a la creación de un entorno adecuado de trabajo que facilite la consecución de los objetivos del resto de las unidades del Departamento. Esta Dirección articula sus funciones a través de Servicios como los siguientes:

- **Gestión Económico-Presupuestaria,** con la función de elaborar el Anteproyecto de Presupuesto del Departamento, así como coordinar el seguimiento del mismo y, en general, la gestión económica y presupuestaria del Departamento, programar, coordinar y, en su caso, elaborar estudios y memorias de contenido económico en las áreas de competencia del Departamento, llevar a cabo la contabilidad del Organismo Pagador de los gastos de la Política Agrícola Común de la Unión Europea, en el ámbito exclusivo de la normativa comunitaria., coordinar y canalizar las relaciones del Departamento con el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, ser el órgano de contratación del Departamento, etc.

- **Gestión de Personal y Asuntos Generales,** con la función de gestionar el personal, prever las necesidades de plantilla, promover planes y programas de formación y perfeccionamiento, mantener adecuadamente informados a los servicios del Departamento, etc.

- **Servicio Jurídico,** que dirige su actividad a asistir en el ámbito jurídico administrativo al Consejero y a los órganos del Departamento, emitir informes en derecho requeridos, coordinar, elaborar en su caso y controlar la normativa emanada del Departamento, efectuar el seguimiento de los intereses del Departamento implicados en procedimientos judiciales y cooperar en su defensa, a través del órgano competente de la Vicepresidencia de Gobierno y tramitar y controlar los expedientes y asuntos que hayan de ser sometidos al Consejo de Gobierno o a sus órganos delegados, así como la de aquellas disposiciones y actos administrativos que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco o en cualquier otro Diario Oficial.

- **Gestión Bibliotecaria, Archivística y Documental,** orientado a organizar y dirigir el Registro General, el Archivo, la Biblioteca y los demás centros de documentación del Departamento.

- **Organización y e-Administración,** con la finalidad de, en un entorno de gestión de calidad, transformar tanto los procesos internos como los relacionados con el exterior, mediante la tecnología, las comunicaciones y el empleo de Internet de forma que se consiga una mayor consistencia y eficiencia en las acciones departamentales, una mejora en su acción de gobierno y un mejor servicio a los ciudadanos.

Una y otra Dirección van a llevar a cabo a lo largo del ejercicio 2006 acciones y proyectos, dentro de su ámbito funcional, que ayuden a conseguir los Objetivos definidos en el apartado anterior Objetivos generales y Marco de Actuación.

Así, por parte de la Dirección del Gabinete del Consejero a través de las Áreas de Actividad enumeradas, se llevarán a cabo acciones como las siguientes:

- NAEseko sailburuordetza eta zuzendaritzekin lankidetzan, Europar Batasunarekiko eta autonomia-, estatu- eta nazioarte-mailako beste erakundeekiko zuzeneko solaskidetzak jarraitu areagotuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako elikagaien sektorearen eta landa-ingurune eta arrantzatik bizi diren eskualdeen interesen defentsan.
 - NPB eta APB aplikatzeko, lankidetzan arituko da Nekazaritza Zuzendaritzarekin eta Arrantza Zuzendaritzarekin, STAR Batzordearekin eta Europako Batzordeko beste erakundeekin.
 - Parte-hartze aktiboa izango du nazioarteko foroetan, esaterako, Euromontanen eta Munduko Landa Foroan, bai eta EU5b Sarean eta Egitura eta Landa Garapenerako Batzordean ere.
 - Beste lurralde, herri eta nazioarteko erakundeekiko harremanak eutsiko die: Suitza, Txile, Dumfries eta Galloway konderrria, Midi-Pyrénées, IICA, FAO, Eskozia, Trento, etab.
 - Sailaren jardura estrategikorako plan eta arautegi berriak diseinatu, koordinatu eta hala dagokionean garatuko ditu: Estrategia Sektoriala 2006-2009; LGIP 2007-2013; Nekazaritza eta Elikadura Politikaren Legea, Janariaren Kalitate Plan Estrategikoa...
 - NAEsen eta Eusko Legebiltzarraren arteko harremanak bideratzen jarraituko du, eta, honako hauek jarriko ditu barne- eta kanpo-erabiltzaileen esku: Europar Batasunak eskatzen dituen arautegiak, jokabide-arauak, jarduteko egutegiak etab.
 - Eusko Jaurlaritzaren plangintza- eta programazio-proiektuekin zerikusia duten eztabaida-gune eta batzordeetan parte hartuko du: PESIko Zuzendaritza Batzordea, Estatistika Batzordea eta Kontseilua, etab., eta, sailak gizarte-komunikabideekin dituen harremanak koordinatuko ditu prentsaurrekoak antolatuz, berriak jakinaraziz etab.
 - NAEsen parte-hartzea daukaten plan eta programak koordinatu, jarraitu eta ebaluatuko ditu.
 - Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren Estatistika Programa Ofiziala prestatuko du, bai eta dagozkion sektore-analisiak eta egoerari buruzko txostenak ere.
 - "Euskadi Informazio Gizartean" izeneko planean parte hartuko du, eta horrez gain, planari dagokionean saila koordinatuko du eta batzordeetan parte hartuko du.
 - Nearthalde taldearen jarduerak koordinatu eta bultzatuko ditu (talde horren barruan daude NAEsen inguruko enpresa eta fundazioak).
 - Sailaren argitalpenak eta Sustrai aldizkaria kudeatuko ditu.
- Bere aldetik, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak, aipatutako ekintza-arloen bitartez, honelako ekintzak burutuko ditu:
- NAEsen Prestakuntza Plana. Prestakuntza-plan hori 2004ko ekitaldian egin zen, eta, bertan, plana ezartzekoan jarraitu beharreko helburuak eta metodologia zehaztu ziren, eta baita prestakuntza-ekintzak, langileek parte hartzeko baldintzak etab. ere.
 - NAEsen organigrama berraztertuko du, eta, horren ondorioz, dagozkion aldaketak egingo ditu lanpostuen zerrendan.
 - Aurrekontuaren kudeaketa ekonomikoa hobetzeko asmoz, NAEsen aurrekontua burutzeko aginte-mahai bat taiutuko du.
 - Interlocución directa y continuada con la UE y otros organismos a nivel autonómico, estatal e internacional en la defensa de los intereses del sector agroalimentario y del medio rural y las zonas dependientes de la pesca de la CAPV, en coordinación con las Viceconsejerías y Direcciones del DAPA.
 - Colaboración en la aplicación de la PAC y la PPC con las Direcciones de Agricultura y Pesca, el Comité STAR y otros organismos pertinentes de la Comisión Europea.
 - Participación activa en los foros internacionales como Euromontana y el Foro Rural Mundial así como en la Red EU5b y el Comité de Estructuras y Desarrollo Rural.
 - Continuación de los contactos con otras regiones, países e instituciones internacionales, como, Suiza, Chile, Condado de Dumfries y Galloway, Midi-Pyrénées, IICA, FAO, Escocia, Trento, etc.
 - Diseño, coordinación y desarrollo, en su caso, de nuevos Planes y Normativa de actuación estratégica departamental: Estrategia Sectorial 2006-2009, PDRS 2007-2013, Ley de Política Agraria y Alimentaria, Plan Estratégico de calidad Alimentaria...
 - Canalización de las relaciones del DAPA con el Parlamento Vasco, así como se seguirá poniendo a disposición de usuarios internos y externos la normativa, las reglas de funcionamiento, los calendarios de actuación, etc. exigidos por la U.E.
 - Participación en foros y comités relacionados con proyectos de planificación y programación del G.V.: Comité Director del PESI, Comité y Consejo de Estadística, etc. y coordinando las relaciones del Departamento con los medios de comunicación social, mediante la organización de ruedas de prensa, comunicados, etc.
 - Coordinación, seguimiento y evaluación de los planes y programas con implicación DAPA.
 - Realización del Programa Oficial Estadístico del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación así como los análisis sectoriales y los informes de coyuntura correspondientes.
 - Participación en el Plan "Euskadi en la Sociedad de la Información", coordinación departamental y participación en los Comités al respecto.
 - Coordinación e impulso de las actividades del grupo Nearthalde, que engloba a las empresas y fundaciones del entorno DAPA.
 - Gestión de las publicaciones departamentales y de la revista Sustrai.
- Por su parte, la Dirección de Servicios Generales a través de las Áreas de Actividad enumeradas, llevará a cabo acciones como las siguientes:
- Plan de Formación del DAPA. Este Plan de Formación se ha elaborado en el ejercicio 2004 y en él se especifican los objetivos y metodología a seguir para su implantación, así como las acciones formativas, condiciones de participación del personal, etc.
 - Revisión del organigrama del DAPA y como consecuencia se realizarán las modificaciones de la RPT oportunas.
 - Cuadro de mando sobre la ejecución presupuestaria del DAPA, con el objeto de mejorar la gestión económica del presupuesto.

- Nekazaritza, arrantza eta elikadurako gaiei buruzko legedia NAESeko informazio juridikoaren sisteman sartuko du.
- Nekazaritzako elikagaien administrazioa modernizatzea helburu duten proiektuak sustatuko ditu. Modernizazio horren bitartez, jarduera arrazionalizatu eta hobetu nahi da, gizartearen beharrei etengabe, ahalik eta gutxien gastatuz, eta epe eta modu egokienean erantzuteko moduan. Zehatz esateko, e-Administrazioarekin zerikusia duten arloetan aurrera egingo da: administrazio-prozesuak hobetuko dira e-Administrazioaren testuinguruan, Administrazio Digitalaren eredu aplikatuko da...
- Se integran en el sistema de información jurídica del DAPA, la legislación relativa a las materias de Agricultura, Pesca y Alimentación.
- Potenciación de los proyectos tendentes a la Modernización de la Administración Agroalimentaria, entendida esta modernización como un proceso de racionalización y mejora en el desempeño de la actividad para dar respuesta permanentemente a las necesidades de la sociedad al menor coste y de manera óptima en plazo y forma. En concreto se avanzará en diferentes áreas relacionadas con la e-Administración: mejora de los procesos administrativos en el contexto de la e-Administración, aplicación del modelo Administración Digital...

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. PROGRAMAZIOA.		1. PROGRAMACIÓN.
1. Sailaren kudeaketa-plana egitea eta jarraitzea.	3	1. Participación en Diseño-Desarrollo de Planes-Medidas Estratégicas.
2. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako PDBen jarraipena eta kontrola.	14	2. Seguimiento y control DOCUPs de Agricultura, Pesca y Alimentación.
3. Europako Batasuneko arauari buruzko txostenak eta informazioa.	24	3. Informes e información normativa Comunitaria.
4. Europako batzordeetan parte hartzea.	2	4. Participación en Comités Europeos.
2. ERAKUNDE HARREMANAK.		2. RELACIONES INSTITUCIONALES.
1. Txostenak, parte-hartzeak eta jarrera-hartzeak lantzea.	>15	1. Elaboración de informes, intervenciones y tomas de posición.
2. Nekazaritza eta arrantzako aholku-mahaiak prestatzea.	6	2. Preparación mesas consultivas agrarias y pesqueras.
3. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekiko nekazaritza eta arrantzako konferentzia sektorialak prestatzea.	12	3. Preparación conferencias sectoriales de agricultura y pesca con el MAPA.
4. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko idazkariekiko bilerak prestatzea.	12	4. Preparación de reuniones con Secretarios Generales del MAPA.
5. Parlamentuko agerpenak eta itaunak prestatzea.	>10	5. Preparación de comparecencias e interlocuciones parlamentarias.
6. Europako erakundeekiko solaskidetzak.	>15	6. Interlocución con Instituciones Europeas.
7. Nazioarteko erakundeekiko bilerak.	>10	7. Reuniones con Organizaciones Internacionales.
3. ESTADISTIKA ETA SEKTOREKO ANALISIA.		3. ESTADÍSTICA Y ANÁLISIS SECTORIAL.
1. NAES 2006ren estatistika-programaren eragiketak eta prozesu berariazkoak kudeatzea.	24	1. Gestión de las operaciones del programa estadístico del DAPA 2006 y procesos específicos.
2. Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Intranet-Internet sareko estatistika-alderdia garatzea.	1	2. Portal estadístico en www.nasdap.ejgv.euskadi.net .
3. Sektoreko txostenak eta analisiak egitea.	>10	3. Realización de informes y análisis sectoriales.
4. Estatistikako kontsultei erantzutea.	>200	4. Atención a consultas estadísticas.
5. Estatistikako datu-baseak eta informatika-aplikazioak sortzea eta iraunaraztea.	1	5. Generación y mantenimiento de bases de datos estadísticos y Aplicativos informáticos.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCION INDICADOR
6. Erabiltzaileak PCaxis-era sartzeko tresnak.	1	6. Herramientas acceso usuarios Base de datos PCaxis.
7. Harremanak izatea beste estatistika-erakunde batzuekin.	>10	7. Mantenimiento de relaciones con otros órganos estadísticos.
4. NAESen INGURUKO ERAKUNDEAK.		4. ENTIDADES ENTORNO DAPA.
1. Bilerak NEARTALDE taldearekin.	10	1. Reuniones grupo NEARTALDE.
2. Bilerak lantaldeekin.	20	2. Reuniones grupos de trabajo.
3. Sektorearen presentzia internetan: Nekanet-en atariak eta intraneta.	2	3. Presencia sectorial en Internet: portales Nekanet e Intranat.
5. ARGITALPENAK.		5. PUBLICACIONES.
1. NAESen argitalpenak.	7	1. Publicaciones DAPA.
2. SUSTRAI aldizkaria.	4	2. Revista SUSTRAI.
6. ERAKUNDE ORDAINTZAILEAREN AUDITORETZA.		6. AUDITORÍA ORGANISMO PAGADOR.
